

BHERRIA EGONALDIA, DOSSIERRA

EUSKADIN HERRITARREN AKTIBAZIO-PROZESUAK
SENDOTZEKO TOPAGUNEA ETA LANTOKIA.

MARTXOAK 12-13. BILBO.

AURKIBIDEA

1. BHERRIA
2. BHERRIA EGONALDIA
3. METODOLOGIA
4. ZER EGIN BHERRIA EGONALDIAN PARTE HARTZEKO



bherria

1. BHERRIA

Bestelako lankidetzak publiko-sozialak bilatu eta sustatzeko helburuz Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluarekin batera sortutako ekimena da Bherria. Lankidetzak mota horien ezaugarriak irekitasuna, parte-hartzea eta partekatutako erantzukizuna dira.

Bherria izena 'Berria' eta 'Herria' hitzak uztartuz sortu da. Izendapen horren bitartez adierazten da herritarren aktibazioari dagokionez udal-jarduera indartu dezaketen ekintzen bilaketa, baita ere lankidetzak-guneen eraikuntza eta boluntariotzaren esperientzia eta baloreen sustapena.

Azken hiru urteetan aurrera egin dugu lankidetzak publiko-sozialerako molde berriei dagokienez, 2017an gauzatutako Bherriaren [Agora](#) guneen bidez; era berean, gune publikoen kudeaketa komunitarioak dakarren erronkari heldu diogu, 2018 eta 2019 artean garatutako [BherriLab](#) herritarren laborategiaren bitartez.

Orain, Euskadin herritarren aktibazio-prozesuak sendotzeko beste proposamen bat dator: Bherria Egonaldia.

2. BHERRIA EGONALDIA

Bherria Egonaldia elkar topatu eta elkarrekin lan egiteko gunea da, udal-administrazioek gidatzen dituzten edo parte hartzen duten proiektuak sakontzeko eta hobetzeko sortua. Proiektu horien helburua pertsonen bizi-kalitatea hobetzea da, herritarren ekimenekin batera lan eginez, eta parte-hartze sozialaren eta boluntariotzaren baloreei lotuta.

Bherria Egonaldia beren udaletan proiektu bat abiarazita duten Administrazio Publikoko teknikariei zuzendua da; **2020ko martxoaren 12 eta 13an** helduko dio aipatutako erronkari, Bilbon. Proposamenak hiru lan-ardatz ditu:

- **Lankidetzak erakunde barruan.** Udal-arloen arteko koordinazioa, herritarren parte-hartze prozesuak eta boluntariotzaren sustapena indartzeko.
- **Lankidetzak erakunde** sozialen eta herritarren ekimenen artean, udalei behar duten laguntza emango dieten estrategia eta baliabideei arreta emanez, dinamika horiek bultzatze aldera.
- **Lankidetzak Administrazio Publikoaren eta herritarren artean,** gizarteak dituen erronka berriei erantzun eraginkorragoak emateko.



3. METODOLOGIA

Bherria Egonaldiak hainbat une proposatuko ditu, formalak eta informalak, lan-jardunaldi bat eta erdian garatuko direnak. Bizikidetzaren oinarri izango duen formatu trinko horrek kontzentrazioa eranstean dio jarduerari, eta topaketaren harreman-potentzia handitzen du; bi alderdi horiek funtsezkoak dira proposamen honen helburu espezifikoetarako. Konbinazioak elkarrekintza horizontalago eta hurbilekoagoa ahalbidetzen du, meritokraziaren logikatik kanpo.

Azken batean, Bherria Egonaldiak ibilbide bat proposatzen du Euskadin herritarren aktibazio-prozesuak indartuz elkarlanean jarduteko, honako elementu hauek barne:

- **EZAGUTU.** Parte-hartzaileek elkar aurkeztea eta ezagutzea errazteko dinamikak proposatuko ditugu. Parte-hartzaile bakoitzak bere udaleko ekimen/egitasmo bat ekarriko du, ekintza-programaren barruan aztertze, garatzeko, kontrastatzeko edo problematizatzeko. Parte-hartzaileek lider izango beharko dute puntu honetan, modu proaktibo eta autonomoan.
- **SAKONDU** boluntariora, asoziazionismoa eta parte-hartze soziala sustatzen eta zabaltzen dituzten proiektu zehatzetan, pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko ikuspuntu aske, kritiko, eraikitzaile eta sormenezko batetik, oinarritzat hartuz jarreradun ezagutza eta dagoeneko garatu diren edo oraindik indarrean dauden proiektuak.
- **IKERTU** proiektuak, egitura komun batean eta ikuspegi berarekin aztertze aukera ematen duen bermean oinarritutako analisi autokritikoa baliatuta, baina bakoitzaren espezifikotasuna aintzat harturik.
- **IRADOKI.** Arretaz begiratu beste toki batzuetan dagoeneko indarrean dauden proiektuei, baita ere gure proiektuetarako eredugarri suerta daitezkeen eta erronkak gainditzeko sormenezko moldeak izateagatik gonbidatuak izan direnei.
- **SAREA ERAIKI.** Ezagutza eta eragileen arteko lotura helburu dituzten ekintzak eta topaguneak —formalak eta informalak—, lanbide arteko harremana eratu eta etorkizunean udalen arteko harremana finkatzeko.
- **EKIN.** Trukatua eskarmentua, ezagutza eta parekideen arteko aholkularitza, parte-hartzaileek bultzatutako proiektuak hobetzeko edo indartzeko.



bherria

- **KOMUNIKATU.** Komunikaziozko zehar-geruza baten bidez, aditzeko eta beharrianak ikertzeko prozesuaren parte dena, izatez; geruza horren xedea informatzea eta ikuspegi desberdinen artean proiektuaren kontakizuna sortzea da, formatu bat baino gehiagotan; boluntariotzaz eta parte-hartze sozialaz interesa dutenen arteko lotura iraunaraztera bideratuta dago, Egonaldia aurrez aurrekotik harago zabalduz sare sozialetako elkarrekintzaren eta elkarriketaren bidez.
- **SISTEMATIZATU.** Ondorioak atera eta ikasitakoa sistematizatu, Euskadin herritarren aktibazio-prozesuak sendotzeko.

4. ZER EGIN BHERRIA EGONALDIAN PARTE HARTZEKO

Irakurri duzunak zure interesa piztu badu, bete ezazu *online* [formulario hau](#) aurretiaz izena emateko eta, era horretan, zure soslai eta Bherria Egonaldira ekarri nahi duzun proiektua ezagutarazteko.

Ziurtatu nahi dugu landuko ditugun proiektuak ahalik eta hurbilen daudela lehen aipatutako hiru ardatzetatik; horrez gain, oreka bilatzen dugu hainbat alderdiri dagokienez: proiektu-mota, hura sustatzen duen udal-saila, garatzen ari den udalaren tamaina, eta jatorrizko lurraldea.

Izena aurretiaz emateko epea otsailaren 21ean bukatuko da, 14:00etan. Talde sustatzaileak parte hartuko duten proiektuen behin betiko hautaketa egingo du, eta ahalik eta lasterren jakinaraziko dugu hautaketa horren emaitza.

Edozer argitzea nahi baduzu, bidali mezu bat bherria@euskadi.eus helbide elektronikora. Bien bitartean, sare sozialen bidez —[Facebook](#) y [Twitter](#)— jarrai diezagukezu, eta #Bherria etiketa erabilia solastatzen, kontrastatzen eta hausnartzen segitu. Zure zain gaude!